



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko otsailaren 15a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lega, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan aldi baterako karga osagarri bat ezarri eta zenbait atxikipen eta konturako diru-sarrera aldatzen dituena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, eginkizun publikoak dauzkaten pertsonen soldatak eta dietak jasotzea arautzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (9. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (9. or.).

—Foru Lege proposamena, irakasleen autoritate publikoari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (9. or.).

—Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala ematekoa. Osoko Bilkuran erretiratzea (10. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Europar Batasuna premiatzen da finantza-transakzioen gaineko tasa bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da iruzur fiskalaren aurkako borroka hobetu eta optimizatu ahal izateko araudia alda dezan. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da igor ditzan enpresa publikoetako kudeatzaileen ordainsariei buruz ezarritako irizpideak. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen behin-behinekotasuna murriztu dezan eta burutzak berrikus ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urteroko Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legea taxutzerakoan Nafarroako hezkuntzarako aurrekontu-esleipenaren goranzko progresioa berma dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da itxaronzerrendei buruzko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mantentzean Ubarmin Klinikako eta ospitaleguneko sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait jarduketa eta protokolo egin ditzan, lanpostuak egokitzeko ezgaitasunen bat duten pertsonentzat. Osoko Bilkurak bazter utzia (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea eta konpromisoa agertzen ditu euskararen presentzia mailaz mailakoa eman dadin komunikabide sozialetan. Osoko Bilkurak bazter utzia (14. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lega, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aldi baterako karga osagarri bat ezarri eta zenbait atxikipen eta konturako diru-sarrera aldatzen dituen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko otsailaren 9an egindako Osoko Bilkuran, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aldi baterako karga osagarri bat ezarri eta zenbait atxikipen eta konturako diru-sarrera aldatzen dituen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aldi baterako karga osagarri bat ezarri eta zenbait atxikipen eta konturako diru-sarrera aldatzen dituen

Foru legeak funtsezko bi arrazoi ditu oinarritzat. Alde batetik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, estatuko kuota osoari aldi baterako karga osagarri bat ezarri izana araubide komuneko lurraldean. Eta bestetik, Foru Komunitatearen diru-sarrera publikoak finkatu eta sendotu beharra, defizit publikoaren helburua lortzea iristeko moduko asmo argia izan dadin, kontuan hartuta egungo testuingurua, non, nazioko nahiz nazioarteko kointura ekonomikoan, batez ere gure inguruko herrialdeetan, jarduera moteltzen joateko joera nabarmena baitago, azken pronostikoei esker ezagutu ditugun datuen arabera.

Lehendabiziko arrazoiari dagokionez, Foru Komunitateak bere zerga araubideari eutsi eta hura ezarri eta arautzeko eskumena duela gogoratu behar da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan aitortua eta Estatuarekin izenpetutako Hitzarmen Ekonomikoan garatua;

hain zuzen ere, lege testu horretan xedatzen denez, Foru Komunitateak estatuan dagoen egi azko presio fiskal orokorraren baliokidea ezarri eta mantenduko du. Agindu hori garatu eta xehetasun guztiekin zehaztu ez bada ere, berarekin dakar Nafarroan ezin zaiola ezikusiarrena egin pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estatuko kuota osoari araubide komuneko lurraldean ezarri zaion karga osagarriak zerga-kargan eragin duen igoera nabarmenari. Defizit publikoa zuzentzeko, aurrekontu, zerga eta finantza arloetan presako neurriak onesteari buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretuaren bidez ezarri da karga osagarri hori 2012ko eta 2013ko zergaldieta-rako.

Zalantzarik gabe, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren funtsezko elementuen sakoneko aldaketa batek –kasu honetan, karga-eskalarenak– ondorio nabarmenak ditu zergadun gehienek jasan beharreko zerga zamaren zenbatekoan eta banaketan, kontuan hartuta, gainera, tributu honen izaera orokorra, zuzena eta pertsonala. Ukaezina da pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela tributu-araubide oren enblema nagusia da, eta agerian geratzen dela, bertan, sistema fiskalak nola islatzen dituen errealitatearen gainean gaitasun ekonomikoaren eta tributu progresibitatearen printzipioak. Horregatik guztiagatik, Foru Komunitateak arlo honetan erabateko eskumena duela ukatu gabe, Hitzarmen Ekonomikoan harmonizaziorako ezarritako irizpide orokorrekin bat, bereziki presio fiskal baliokidea mantentzekoa, beharrezkoa da kontuan hartzea zerga horri dago-kionez araubide komuneko lurraldean gertatu diren aldaketak.

Diru-sarrera publikoen premiazko sendotzeaz den bezainbatean, gogoratu behar da Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko memorian ohartarazten zela aurrekontu hauen testuinguru

ekonomiko eta finantzarioa zaila izanen zela, ohi ez bezain zaila. Gure inguruko herrialdeetako hazkunde-aurreikuspenak, oraintsu jakinarazi direnak, 2011. urtearen amaieran zeudenak baino askoz ezkorragoak dira, eta Foru Komunitateari ere eragiten diote, are gehiago kontuan hartuta gure ekonomia kanpoko eskaeran oinarritzen dela. Egoera horrek, bistan da, zergetatik datozkigun diru-sarrei ere eraginen die eta, beraz, defizit publikoaren helburua lortzea baldintzatuko du. Horrexegatik, arrazoizkoa eta zentzuzkoa da eskatzea zergadun nafarrei ahalegin gehigarria egin dezaten, Foru Komunitatearen aurrekontuen oreka bermatzearen, horrek lagunduko baitu Nafarroako sektore publikoari sinesgarritasuna ematen, eta oinarri sendoak finkatzen jarduera ekonomikoaren etorkizuneko garapenerako eta enplegua sortzeko.

Foru legearen egitura bi artikuluk osatzen dute. Lehenengo artikulua aldatu egiten du ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina. Lehen idatz-zatian (Bat), aldaketa bat egiten du zerga-oinarri orokorraren karga-eskalan. 45.480 eurotik 88.000 eurora doan tartea bitan egin da, eta bi tarte berri sortu dira. Lehendabiziko tartean sartuta daude 45.480 eurotik 53.407 eurora bitarteko likidazio oinarriak, eta % 40ko karga-tasarekin zergapeturik egonen da. Bigarrenean, berriz, 53.480 eurotik 88.000 eurora bitarteko likidazio oinarriak daude sartuta, eta karga-tasa % 42koa izanen da. Karga-eskalaren aldaketa honek ondorioak izanen ditu 2012an amaitzen diren zergaldietan, foru lege honek indarra hartu ondoren, eta 2013an amaitzen direnetan.

Artikulu honen bigarren idatz-zatiak (Bi) karga osagarri bat ezartzen du zergaren kuota osoan, eta, aurreko kasuan bezala, ondorioak izanen ditu 2012an amaitzen diren zergaldietan, foru lege honek indarra hartu ondoren, eta 2013an amaitzen

direnetan. Hortaz, zergaren kuota osoak, hau da, likidazio oinarri orokorrari eta aurrezkiaren oinarri bereziari dagozkien tasen aplikaziotik sortutako kuoten baturak, igoera bat izanen du, karga osagarri berria likidazio oinarri horiei aplikatetik sortutakoa adinakoa. Karga horrek bi eskala berri ditu eta haietako bakoitza aplikatuko zaio, hurrenez hurren, likidazio oinarri orokorrari eta aurrezkiaren likidazio oinarri bereziari.

Aurreko igoerarekin bat, lehen artikuluko hiru-garren idatz-zatiak (Hiru) aldaketak ezarri ditu lan etekin orokorren eta administrazio kontseiluetao kideen lansarien gaineko atxikipen portzentajeen tauletan. Artikuluaren laugarren idatz-zatiak (Lau) aldatu egiten ditu bestelako errenten gaineko atxikipenen eta konturako diru-sarrerren portzentaje batzuk, hala nola honako errenten gainekoak: kapital higigarriaren etekinak, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen eta partaidetzen eskualdatzeen edo errenboltsoen ondoriozko ondare gehikuntzak, eta ondasun higiezinaren errentamenduetatik eta azpierrementamenduetatik heldu diren etekinak.

Azkenik, laugarren idatz-zati horretako edukia-ekin bat, bigarren artikulua Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen du, zerga honen atxikipenen eta konturako diru-sarrerren portzentaje berriak ezartzeko.

Lehenengo artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzea.

Bat. Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 59.1 artikulua aldatu da. 2012an, foru lege honek indarra hartu ondoren, eta 2013an amaitzen diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, gehienez ere (euroak)	Kuota osoa (euroak)	Oinarriaren gainerakoa (euroak)	Aplikatu beharreko tasa (portzentajea)
		3.825	13
3.825	497,25	4.674	22
8.499	1.525,53	9.027	25
17.526	3.782,28	13.279	28
30.805	7.500,40	14.675	36
45.480	12.783,40	7.927	40
53.407	15.954,20	34.593	42
88.000	30.483,26	37.000	43
125.000	46.393,26	Gainerakoa	44

Bi. Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari berrogeigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2012an, foru lege honek indarra hartu ondoren, eta 2013an amaitzen diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Berrogeigarren xedapen gehigarria. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aldi baterako karga osagarri bat ezartzea.

58. artikuluan aipatzen den zergaren kuota osoak zenbateko hauek adinako igoera izanen du:

a) 59. artikuluan aipatzen den likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan ageri diren karga-tasak aplikatuzetik sortutakoa:

Likidazio-oinarria, gehienez ere (euroak)	Kuota osoaren igoera (euroak)	Oinarriaren gainerakoa (euroak)	Aplikatu beharreko tasa (portzentajea)
		3.825	0
3.825	0,00	4.674	0,5
8.499	23,37	9.027	0,5
17.526	68,50	13.279	1,50
30.805	267,69	14.675	2,00
45.480	561,19	7.927	2,50
53.407	759,37	34.593	3,00
88.000	1.797,16	37.000	3,50
125.000	3.092,16	50.000	4,00
175.000	5.092,16	125.000	4,50
300.000	10.717,16	Gainerakoa	5,00

b) 60. artikuluan aipatzen den aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan ageri diren karga-tasak aplikatuzetik sortutakoa:

Likidazio-oinarria, gehienez ere (euroak)	Kuota osoaren igoera (euroak)	Oinarriaren gainerakoa (euroak)	Aplikatu beharreko tasa (portzentajea)
0,00	0,00	6.000,00	1
6.000,00	60,00	18.000,00	3
24.000,00	600,00	Likidazio oinarriaren gainerakoa	5

Zerga araudian 59. artikuluko eskala edo tarifa-ren aplikazioa aipatzen denean, eskala hori karga osagarria gehituta aplikatuko da.”

Hiru. Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari berrogeita batgarren xedapen

gehigarria gehitzea. 2012an, foru lege honek indarra hartu ondoren, eta 2013an ordaintzen edo abo-natzen diren etekinetan izanen ditu ondorioak.

“Berrogeita batgarren xedapen gehigarria. Lan etekinen gaineko atxikipenen edo konturako diru-sarreraren portzentajea.

1. Atxikipen portzentajeen taula orokorra.

URTEKO ETEKINA EUROTAN	SEME-ALABEN ETA BESTE ONDORENGO BATZUEN KOPURUA										
	Seme- alabarik gabe	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 edo gehiago
11.250etik gora	4,10	2,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
12.750etik gora	6,20	4,10	2,10	0,10	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
14.250etik gora	8,20	6,20	4,10	2,10	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
16.750etik gora	10,20	8,20	6,20	4,20	1,10	0,10	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
19.750etik gora	12,30	11,30	9,70	8,20	6,20	4,10	0,10	0,00	0,00	0,00	0,00
23.250etik gora	13,80	12,30	11,80	9,20	8,20	6,20	4,10	0,10	0,00	0,00	0,00
25.750etik gora	14,90	13,40	12,80	10,30	9,70	8,20	6,20	4,10	1,10	0,00	0,00
28.250etik gora	16,00	14,50	13,90	12,40	10,80	9,20	8,20	6,10	4,10	1,10	0,00
32.250etik gora	17,10	15,60	15,10	13,50	12,90	11,30	10,20	8,20	7,20	5,10	2,10
35.750etik gora	18,20	17,20	17,10	14,60	14,00	13,40	12,30	10,30	9,20	7,20	6,10
41.250etik gora	19,40	18,30	18,30	16,70	16,10	15,60	13,50	12,40	11,30	10,20	9,20
48.000tik gora	21,50	21,50	20,90	18,90	18,30	17,70	16,60	15,60	14,50	13,40	12,30
55.000tik gora	24,10	23,50	23,00	21,50	21,50	20,90	19,80	18,70	17,70	16,60	15,00
62.000tik gora	26,10	25,50	24,50	24,50	23,50	22,90	21,90	21,40	19,80	18,70	17,20
69.250etik gora	28,30	27,70	27,20	26,60	25,10	25,00	24,40	22,90	21,80	20,30	19,30
75.250etik gora	29,40	29,40	28,30	27,30	27,20	26,20	26,10	24,50	23,40	22,30	21,30
82.250etik gora	30,50	30,50	30,50	29,40	29,40	28,30	27,70	26,60	25,60	24,50	23,90
94.750etik gora	31,70	31,70	31,70	30,60	30,60	30,50	29,50	28,90	27,80	26,80	25,70
107.250etik gora	33,90	33,90	33,90	32,90	32,30	31,70	31,20	30,10	29,50	28,50	27,40
120.000tik gora	35,10	35,10	34,60	34,00	33,50	32,90	32,40	31,30	30,70	29,70	29,10
132.750etik gora	35,80	35,70	35,20	34,70	34,10	33,60	33,00	32,50	31,90	30,80	30,30
146.000tik gora	36,40	36,40	36,40	35,80	35,30	34,70	34,20	33,60	33,10	32,50	31,90

2. Jardunean izan eta desgaitasuna duten langileei goiko 1. idatz-zatian ezarritako taulan dago-

kien atxikipena eginen zaie, baina ondoko eskalan ageri den koefiziente murriztailea aplikatuta:

Urteko etekinak (euroak)		Elbarritasun maila	
Zenbateko honetatik	Zenbateko honetara	100eko 33 edo gehiago	100eko 65 edo gehiago
11.250,01	23.250,00	5	15
23.250,01	41.250,00	3	15
41.250,01	94.750,00	2	8
94.750,01	Hortik gora	2	5

Eskala horretan agertzen diren murrizketak aplikatzearen ondorioz, ezin izanen da zerotik beherako portzentajerik atera.

Langabeziako prestazioen kasuan, entitate kudeatzaile batek onetsiak betiere, atxikipenetan honako portzentaje hauek aplikatuko dira:

3. Atxikipenen portzentajea, langabeziako prestazioen kasuan.

Urteko atxikipenaren zenbatekoa eurotan	Portzentajea
11.250etik gora	4,10
12.750etik gora	6,20
14.250etik gora	8,20

4. Administrazio kontseiluetako kideek, kontseilu horien ordeztaritzen diren batzordeetako kideek eta antzeko ordezkariak organoetako gainerako kideek, izaera hori dela-eta jasotzen dituzten lantzaileen kasuan, atxikipenaren portzentajea % 35koa izanen da.

5. Portzentaje horiek erregelamendu bidez aldatzen ahalko dira”

Lau. Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari berrogeita bigarren xedapen gehigarria gehitzea. 2012an, foru lege honek indarra hartu ondoren, eta 2013an ordaintzen edo abonatzeko diren errentetan izanen ditu ondorioak.

“Berrogeita bigarren xedapen gehigarria. Honako gainean egin beharreko atxikipenaren edo konturako diru-sarreraren portzentajea: ondasun higigarrien kapitalaren etekinak, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen edo partaidetzen eskualdatzeen edo errenboltsoen ondoriozko ondare gehikuntzak, sariak, ondasun higiezinaren errentamendu eta azpierreantamenduak, irudi eskubidearen lagapena, eta ondasun higigarrien kapitalaren bestelako etekin batzuk.

Atxikipenaren edo konturako diru-sarreraren portzentajea % 20koa izanen da ondasun higigarrien kapitalaren etekin edo ordainsarrietan, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioen edo partaidetzen eskualdatzeen edo errenboltsoen ondoriozko ondare gehikuntzetan, sarrietan, ondasun higiezinaren errentamendu eta azpierreantamenduetan, irudi eskubidea ustiatzeko eskubidearen lagapenaren etekinetan, jabetza intelektualaren edo industrialaren ondoriozko etekinetan, laguntza teknikoko prestazioen etekinetan eta ondasun higigarrien, negozioen edo meategien errentamenduen edo azpierreantamenduen ondoriozko etekinetan.

Portzentaje hori erregelamendu bidez aldatzen ahalko da”

Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen aldaketa.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeari hogeita zazpigarren xedapen gehigarria erantsi zaio. 2012an, foru lege honek indarra hartu ondoren, eta 2013an ordaintzen edo abonatzeko diren errentetan izanen ditu ondorioak.

“Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea. Orokorrean, egin beharreko atxikipenaren edo konturako diru-sarreraren portzentajea % 20koa izanen da.

Portzentaje hori erregelamendu bidez aldatzen ahalko da”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, eginkizun publikoak dauzkaten pertsonen soldatak eta dietak jasotzea arautzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, eginkizun publikoak dauzkaten pertsonen soldatak eta dietak jasotzea arautzen duena.

Proposamen hori 2011ko azaroaren 11ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkeztutako Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzen duena.

Proposamen hori 2011ko azaroaren 18ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, irakasleen autoritate publikoari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroako Parlamentuko Parlamentu Talde Popularrak aurkeztutako Foru Lege proposamena, irakasleen autoritate publikoari buruzkoa.

Proposamen hori 2011ko azaroaren 25eko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala ematekoa.

OSOKO BILKURAN ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2012ko otsailaren 9an egindako bileran, adierazi zuen jakinarren gainean dagoela 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako Nafarroako herritarrak omendu eta dagokien ordain morala emateko Foru Lege proposamena erretiratu izanari dagokionez. Foru

lege proposamen hori Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2011ko azaroaren 25eko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Europar Batasuna premiatzen da finantza-transakzioen gaineko tasa bat abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko otsailaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Europar Batasuna premiatzen da finantza-transakzioen gaineko tasa bat abian jar dezan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Europar Batasuna premiatzen da finantza-transakzioen gaineko tasa bat abian jar dezan

1. Nafarroako Parlamentuak ulertzen du finantza-sektorea dela egungo krisi ekonomikoaren ardura-dun nagusia eta, hortaz, krisiaren ondorioen aurrean nolabaiteko erantzunen bat eman behar duela.

2. Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio finantza-transakzioen gaineko tasa bat, akzio, bono, dibisa eta finantza-deribatuen trukeei aplikatua, sortu eta ordainarazteari. Bildutako dirua erabiliko da txirotasunari aurre egiteko, klima-aldaketari aurre egiteko, zerbitzu publikoak eta enplegua babesteko eta munduko finantza-sistemaren egonkortasuna sustatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasuna eta hura osatzen duten estatuetako gobernuak premiatzen ditu finantza-transakzioen gaineko tasa hori ezar dezaten Europan, NBERen babespean ondoren munduan ezartzeko lehen pauso gisa.

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da iruzur fiskalaren aurkako borroka hobetu eta optimizatu ahal izateko araudia alda dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko otsailaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da iruzur fiskalaren aurkako borroka hobetu eta optimizatu ahal izateko araudia alda dezan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Espainiako
Gobernua premiatzen da iruzur
fiskalaren aurkako borroka hobetu
eta optimizatu ahal izateko
araudia alda dezan**

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du araudia alda dezan eta bere esku dauden tresna nahiz bitarteko guztiak bere eskumenak baliatuz hobetu eta optimiza ditzan, zerga-iruzurraren aurkako borroka optimizatzeko eta hobetzeko. Hartara, ondokoak eginen ditu gutxienez ere:

- Zerga-iruzurreko delituengatiko zigorrak gogortu.
- Zerga arloko delituen preskripzio-epea luza-tu.

– Informatzeko betebeharrak ezarri finantza-entitateei, paradisu fiskaletara eginiko transferentzien kasuan. Transferentzia horiei zigor fiskalak ezarri.

– Polizia fiskal bat egituratzeko aukera aztertu.

– Nazioarteko erakundeetan defendatzea paradisu fiskalen isolamendua eta herrialdeen arteko kapital-mugimenduen gardentasuna.

– Koordinazioa bultzatu tributu agentzien artean, bai eta tributu agentzien, Lan Ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren artean ere.

– Bere eskumeneko lege- eta arau-neurriak ezarri, pertsona juridikoen abusuzko erabilera ekiditeko.

– Lurraldeen arteko eta nazioarteko iruzur-mugimenduak eta -plangintzak jazarri.

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da igor ditzan
enpresa publikoetako kudeatzaileen ordainsariei buruz ezarritako iriz-
pideak.**

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Ana Beltrán Villalba andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da igor ditzan enpresa publikoetako kudeatzaileen ordainsariei buruz ezarritako irizpideak”.

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 10ean egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-lean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-
Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen behin-behinekotasuna
murriztu dezan eta burutzak berrikus ditzan.**

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbidea-Nafarroa-ko Osasun Zerbitzuko langileen behin-behinekotasuna murriztu dezan eta burutzak berrikus ditzan”.

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko urriaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-lean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urteroko Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legea taxutzerakoan Nafarroako hezkuntzarako aurrekontu-esleipenaren goranzko progresioa bermatuz.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da urteroko Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legea taxutzerakoan Nafarroako hezkuntzarako aurrekontu-esleipenaren goranzko progresioa bermatuz."

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzeko. Mozio hori 2011ko urriaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da itxaronzerrendei buruzko azterlan bat eginez.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da itxaronzerrendei buruzko azterlan bat eginez."

mozioa baztertzeko. Mozio hori 2011ko urriaren 28ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da mantentzen Ubarmin Klinikako eta ospitaleguneko sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Marisa De Simón Caballero andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da mantentzen Ubarmin Klinikako eta ospitaleguneko sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa."

mozioa baztertzeko. Mozio hori 2011ko urriaren 28ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait jarduketa eta protokolo egin ditzan, lanpostuak egokitzeko ezgaitasunen bat duten pertsonentzat.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait jarduketa eta protokolo egin ditzan, lanpostuak egokitzeko ezgaitasunen bat duten pertsonentzat"

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2011ko azaroaren 4ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea eta konpromisoa agertzen ditu euskararen presentzia mailaz mailakoa eman dadin komunikabide sozialetan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondatea eta konpromisoa agertzen ditu euskararen presentzia mailaz mailakoa eman dadin komunikabide sozialetan"

Legebiltzarrak, 2012ko otsailaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko urtarrilaren 27ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

